- Garajeei eta etxebizitzeei irtenbidea aurkituko dien egitura unitarioaren eta eraikuntza lerrokaden zehazpena.
 - Arrapalen aukera: hiru kokapen aukeran.
 - Kotxe-jasogailuaren aukera: arrapalen posizioan.
 - Osagarri, Andra Mariko aparkalekuarekin loturaren aukera.
- Egituraren zehazpenean, besteak beste, kontuan izan ziren:
 - Suteen baldintzak (ebakuazioa, aireztatzea) eta jarduera-proiektuaren oinarritzko hastapenen irtenbideak.
 - Irigarritasuna oinezkoentzako, gurpilezkoentzako eta elbarrientzat: komunikazio bertikaleko elementuen kokapena (igogailuak, eskailerak).
 - Egitura orokorreko ardatzak; zutabe, zimendu eta egitura-tipologiaren adierazgarri.
- Proposamen osoko balioespen ekonomikoa, instalakuntza bereziak nabarmenduz; kasu honetan, kotxe-jasogailua edo edozein egitura-konponbide berezia.

AUKERA EGOKIEN ETA ORDEZKOEN TAULA

Aztertutako aldagaien eta euren egokitasun tekniko edo ekonomikoaren ondorioz, "Aukera Taula" bat eratu zen. Taula horrek "Ordezko Aukera Egokiak" zehaztea ahalbidetu zuen:

			TIPO DE ACCESOS	Coste Gestión económica		Otros condicionantes			Funcionalidad			ALTERNATIVAS ADECUADAS
				Relación $\$/$ plazas elevada-Alto coste económico	Imposibilidad de ejecución por fases	Perjuicio a terceros (Cesión Actividad Hotel)	Perjuicio en el entorno urbano	Incremento de tráfico en casco viejo	Gestión de recorridos compleja	Excesivo tiempo de acceso	Excesiva longitud de accesos	
AN 1	Fase 1-2	NH	NH+(M1+M2+M3)									
			NH+(RN1+M2+M3)									
			NH+(RN1+RN2)									
			NH+(RN1+RN3)									
			NH+RN1+RN6									F1-2.a
			NH+RN3+RN6									F1-2.b
			NH+RN3									F1-2.c
	NH+RN6									F1-2.c		
	Fase 1	H	H+(M2+M3)									
			H+(RN1+M2+M3)									
			H+(RN1+RN2)									
			H+RN6									F1.c
			H+(RN1+RN6)									
H+(RN2+RN6)												
CN3	CN3	-										
		N-CN3										
AN2	Fase 0	CN1-2	RE1+RE2									F0.b
			RN4									
			RN5									
			B1									
			Dependencia F1-2									
AE1 + AE2	CN2	RE1+RE2										
		RN4										
		RN5										
		B1										

Leyenda de colores:
 Valoración Negativa
 Alternativas Adecuadas



“Ordezko Aukera Egokiak” marraztu eta zenbatu egin ziren. Plan Bereziaren Aldaketaren lehenengo proposamena eta egungo proposamena zehazteko erreferentzia gisa erabili dira.

EGITURAZKO JARDUKETARAKO GOMENDIOAK

Azterketak "Egitura-Egikaritze Gomendioak" barne hartzen zituen, besteak beste:

- Aparkalekuko perimetro-pareta: "pantaila-hormen" bidez.
- Zimenduak eta maila freatikoa: ira-gaitzitako zimendu bidez. Lauzaren ertza 80-90 cm-tan egongo litzateke(eraikinaren altueraren arabera). Zimenduaren eta bere gain jasaten dituen eraikinaren pisua nahikoa izango litzateke subsidentzia/azpipresioko fenomenoei aurre egiteko. Eraikuntzarik ez dagoenez aparkalekuaren gainean, ertza ibai-hertzearen parean une-unean handitu liteke.
- Etxebizitza eraikinaren eta aparkalekuaren arteko egitura-konbinazioa
- Dilatazio-juntura eta fasekako egikaritzea.

PLAN BEREZIAREN ALDAKETAREN AURRERAKINA ETA HASIERAKO ONESPENAREN LEHENENGO DOKUMENTUA

AURRERAKINAK

SARRERA ETA OBJEKTUA

“Tolosako 7.1 “Ezkerraldea” Azpi-Eremuaren Birgaitzeko Plan Bereziaren Aldaketa” deritzon dokumentu honek 8lehen “RC2 Eremua” deiturikoa) Aurrerakin eta Hasierako Onespen Fasean landutako dokumentuari jarraipena ematen dio. Sustatzailea Tolosako Udala izan da. Idazkuntza taldea ERDU izan da.

Aurrerakin Faseko dokumentua oinarritzko dokumentu bezala landu zen arloko Administrazio publiko eskudunek aztertu eta txostenak bidali ahal zezaten (2013ko azaroan).

Aurrerakinaz gero, “Tolosako lehen “RC2 Eremua” deituriko 7.1 “Ezkerraldea” azpi-Eremuaren Birgaitzeko Plan Bereziaren Aldaketa”-ren lehenengo bertsio bat idatzi zen, eta hasierako onespena eman zitzaion (GAO, 2014ko apirilaren 11)

Aurreko dokumentuen analisirako, beren kontsulta bidaltzen da.

Edozein kasutan, Oria ibaiaren ubideratzearentzako ezarritako baldintza berriek dokumentuaren idazketa berria (eta bere tramitazio berria) baldintzatu dute. Ondorioz, jasotako arloko hainbat txosten desberdinak baliogabekoak direla egiaztatzen da. Zehaztapenak pasatako planteamenduen gainean eta/edo gertatutako araudi berriaren aplikaziorik gabe burutzen dira.

Dena dela, Aldaketa honen eta lehenengo bertsioaren tramitazioaren epeetan, lanen garapena baldintzatu duen oinarritzko hurrengo legeria onetsi da:

- EAEko Kantauriko Ibaiek eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa (449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa)
- Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren Berrazterketa (1/2016 Errege Dekretu, urtarrilaren 8koa).

ARLOKO TXOSTENAK

EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILAREN TXOSTENA

Indarrean dagoenez, alderdi garrantzitsuenak laburbiltzen dira. 2013ko azaroaren 8an, “RC2 Ezkerraldeko Eremuaren Birgaitzeko Plan Bereziaren Aldaketa- Aurrerakin Fasea” deritzon dokumentuari dagokion txostena igortzen da.

Sailaren “Erabakiek” aldaketaren proposamena positiboki baloratzen dute.

Hala ere, Hirigune Historikoaren ingurunean eta itxuran ahal den hoberen integratzeko, hurrengo gomendioak ematen dira:

- “1- Aurrerakin dokumentuak jasotzen duen urbanizazio irizpidea mantendu dadila, ondarearen eta ingurumenaren aldetik interesa duten hasierako ubideratze horma-tarteen zatikako birgaitzea eta sendotzea proposatzeko.
- 2- D eraikin berriaren atzealdeko fatxadaren goiko solairuen irtenune jarraitua kendu dadila–24,26 m. x 1,00 m-tako tartea–, emaitza espaziala Multzo Monumentala izendatutako kaleen zabalerarekin koherentea izan dadin.
- 3- Araudiaren 21. Artikuluak, laugarren puntuaren, soilik kolore naturalezko eta uhin bikoitzeko exekuzioko –kanala eta bizkarra- zeramikazko teilak onartu ditzala, eragin bisual berezia duen aurrealdean, Multzo Monumentalarentzako estalki-ehundura egokia sortzen lagunduko duelakoan.
- 4- Araudiaren 27. Artikuluan aldatutako planak hasierako planaren testua mantendu dezala, kofaduren arrotziak egurrezkoak soilik izan daitezela eskatzeko; barne-fatxadetan beste materialak ere onartu ahal izango direla gehituz.

Oyarbide Hostatuari dagokionez:

- “aldaketan proposatutako antolamendua, oinarritz, aurrekoa bezala da, aldaketa garrantzitsu batekin: Gorriti Plazako 1. zenbakiko eraikina mantentzea. Eraikin hori, plan berrian, “A Erakina” da. Hori aldaketa garrantzitsu bat da: alde batetik, eremuaren benekotasuna mantentzeko; eta, bestetik, hirigunearen itxuraren barne hiri-eraberritzearen integrazio hoberena lortzeko”.

UR AGENTZIAREN TXOSTENA

2014ko otsailaren 20an, Tolosako Udalak eskatua, Ur Agentziak Aldaketaren Aurrerakin dokumentuari dagokion Hirigintza-txostena igortzen du (IU-G-2013-0020 Espedientea). Ondoren hartutako akordioengatik eta gerora sortutako araudiagatik, ez du zentzurik bere analisia azaltzea.

HASIERAKO ONESPENAREN LEHEN BERTSIOARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Jendaurrean jarritako epean, alegazio bat jaso zen, Oyarbide Hostatuari buruzkoa. Honakoak planteatzen ziren:

- Ekialdeko eta hegoaldeko gorputzak finkatzea, eta antolamenduz kanpo ez izendatzea.
- Errentagarritasun ekonomikoa eza ikusita, kontuan hartzea Egikaritze Unitatean parte hartzeari uko egiteko adierazpena.
- Kontuan hartzea antolamenduz kanpo izendatutako elementuen merkatuko prezioa baloratu beharke zela (hego-eraikinaren lehenengo solairuan etxebizitza bat dago, eta beste biak ostatu emateko erabiltzen dira- ustiapen komertziala-).

Ubideratzeak ezarritako afekzioak eta ezarritako terminoetan Aldaketarekin jarraitzeko ezina dela eta, alegazioa ez zen baloratu.

LAN BILKURAK

Tolosako Udalak eta idazkuntza taldeak hainbat lan bilkura izan zituzten (Aurrerakin Fasean zein Hasierako onespeneren lehenengo bertsioan) arloko administrazio eskudunekin (URA Ur Agentziarekin, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin), zehaztapen berriek edo arlo bakoitzeko afekzioek sortutako alderdi tekniko desberdinak aurretik zehazteko asmoz.

Izandako bilkuren ondorioz (bereziki Hasierako Onespeneren lehenengo bertsioaren dokumentutik), posible izan da lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea, Plan Hidrologikoaren terminologiaren arabera Lankidetzaz Protokolo Orokorra deritzona.

LANKIDETZAZ PROTOKOLO OROKORRA

Plan Hidrologikoaren Araudiaren 43. Artikulua Administrazio Hidraulikoak beste Autonomia-Erkidegoko eta toki-administrazioekin Lankidetzaz Protokolo Orokorra sustatuko dituela zehazten du. Bere xedea uholdeek har ditzaketen eremuetan erabileren antolamendua ahalbidetzen duten neurrien programak ezartzea da. Horretaz gain, lagundu dezatela ibai baten edo ibai tarte baten uholdeen aurrean pertsonen eta ondasunen babesean, jabari publiko hidraulikoaren egoera mantentzeko helburua lortzen, ur-ekosistemen narriadura saihesten (hobekuntzan lagunduz), eta uholde-kasuko korronteen erregimena babesten (ibilguaren lurzoru mugakideen eginkizunari dagokionez emarien eta garraiatutako karga solidoen laminazioan lagunduz)

Uren Legearen Testu Bateraginen 25.4 artikulua txostena ahaztu gabe, Protokoloak izango dira administrazioen arteko koordinazio-tresna lurzoru urbanizatuan uholdeen aurkako babesean egiturazko neurriak zehazteko.

Bi dokumentuen tramitazio-epeen zehar eta Aldaketa honen aurreko bertsioetan, Oria ibai-ibilguaren afekzioak Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Ur Agentziarekin batera erabaki dira.

Plan Berezira aplikaziozkoak diren Afekzio horiek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Tolosako Udalak izenpetu duten Protokoloan adierazi dira (2016-06-29). Ondorioz, Aldaketa hau Protokolo horretan oinarritzen da. Bere garrantziagatik, osorik eranstean da.

UHOLDE ARRISKUA IZANEZ GERO HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Eremua uholdeak jasateko arriskuan izan daitekeen gunearen barne dago (ARPSI: ES017-GIP-15-2. Tolosa / Ibarra).

ARPSI Fitxa: ES017-GIP-15-2. Tolosa / Ibarra



DEMARCACIÓN HIDROGRÁFICA CANTÁBRICO ORIENTAL
 ÁMBITO COMPETENCIAL DE LA
 CONFEDERACIÓN HIDROGRÁFICA DEL CANTÁBRICO
 MAPAS DE PELIGROSIDAD Y RIESGO DE INUNDACIÓN

NOVIEMBRE 2013

CÓDIGO DEL ARPSI: ES017-GIP-15-2. Tolosa / Ibarra

PLANO DE LOCALIZACIÓN



FICHA DE DATOS

DATOS DE LOCALIZACIÓN

Demarcación:	D.H. CANTÁBRICO ORIENTAL
Subcuenca:	ES028MAR002610-ES023MAR002591-ES028MAR002662
Cauces:	ORIA - ARAXES
Núcleo/s afectado/s:	Tolosa, San Blas, San Esteban, Ibarra
Municipio/s:	Tolosa / Ibarra
Provincia / Territorio Histórico:	GUIPUZCOA
Comunidad Autónoma:	PAÍS VASCO

HIDROLOGÍA
 Caudales obtenidos mediante el empleo del abaco " Caudales específicos de avenidas en función de la cuenca afluente y la probabilidad de inundación" para el cálculo de caudales máximos de avenidas establecido en el Plan Hidrológico Norte III. Ud (m³/s).

CAUCE	ALTA PROB.	MEDIA PROB. (T100)	BAJA PROB.
5.Oria	504	714	1084
6.Araxes	179	265	412
7.Oria	594	836	1264
8.Zelai	79	124	192
9.Oria	624	877	1323


MAPAS DE PELIGROSIDAD

Cartografía de las zonas inundables para alta, media (T100) y baja probabilidad, de la Zona de Flujo Preferente y estimación indicativa de los cauces públicos, según la definición recogida en el RD 9/2008.

MAPAS DE RIESGO


Nº de habitantes que pueden verse afectados dentro de la zona inundable	ALTA PROB.	MEDIA PROB. (T100)	BAJA PROB.
	1.827	6.129	9.728
Vías de comunicación afectadas	ALTA PROB.	GI-2634, GI-3650, GI-3713, E-05/E-80/A-1	
	MEDIA PROB. (T100)	GI-2634, GI-3412, GI-3650, GI-3713, E-05/E-80/A-1, Ferrocarril convencional	
	BAJA PROB.	GI-2130, GI-2634, GI-3211, GI-3212, GI-3412, GI-3421, GI-3650, GI-3713, E-05/E-80/A-1, Ferrocarril convencional	
Riesgos ambientales dentro de la zona inundable	EDAR	<input type="checkbox"/>	
	Instalaciones Industriales (IPPC)	<input type="checkbox"/>	
Incidencias con Registro de Zonas Protegidas	Patrimonio	<input type="checkbox"/>	
	Captación agua	<input type="checkbox"/>	
	Uso recreativo	<input type="checkbox"/>	
	LIC	<input type="checkbox"/>	
	ZEPA	<input type="checkbox"/>	
Otros elementos	---		

DELIMITACIÓN DE ZONAS INUNDABLES



Jarraian, uholde-afekzioak adierazten dira.

Uholdegarritasun eta lehenatasunezko fluxu ertzak– Ur Agentzia (Bisorea – 2016ko uztaila)



Uholdegarritasun-afekzioen ondorioz, Plan Bereziak, soto-solairurako, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren alde espainiarraren Plan Hidrologikoaren Araudiek jabari publiko hidraulikoko polizia gune uholdegarrian dauden sestra-azpiko garajetarako ezarritako baldintzak sartzen ditu (1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa).

40. Artikulua kontuan hartuz, erabilera mugapenak polizia uholdegarri gunean honakoak dira (4. puntua):

- Sotoak eta azpi-lurreko garajeak jarri ahal izango dira, baina barruko estankotasuna bermatu beharra dago 500 urte bitarteko errepika-denborako uholdeek har ditzaketen eremuetan. Arnasbide eta ebakuazio bideak eremu horien koten gainetik jarriko dira.
- Bizitegi-erabilera baimendu ahal izango da (500 urte bitarteko errepika-denborako uholdeek har ditzaketen eremuen gainetik aurreikusten da (goi-solairuetan))

Aukerako prebentziozko neurri bezala, aparkalekuko sarbide arrapala 74.00 metrotako kotaraino igo ahal izango da (Eraikuntza Proiektuetan zehaztuko da).

Honako dokumentua idazterako unean, UR Agentziak uholdeek har dezaketen Q_{100} eremuaren kota 73,76m-tan zenbatu du, eta Q_{500} eremuaren kota 75,90m-tan (Kota horiek LIDARari erreferentziatuak daude). Hala ere, UR Agentziak idazkuntza taldeari urak har ditzakeen eremuen sestrak berriro aztertu daitezkeela helarazi dio, kalkuluaren eguneratzearen ondorioz.

PLAN BEREZIAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENAREN BIGARRENGO DOKUMENTUA

AURRERAKINAK

SARRERA ETA OBJEKTUA

“Tolosako 7.1 “Ezkerraldea” Azpi-Eremuaren Birgaitzeko Plan Bereziaren Aldaketa” deritzon dokumentu honek (lehen “RC2 Eremua” deiturikoa) Hasierako Onespenaren bigarren Fasean landutako dokumentuari jarraipena ematen dio. Sustatzailea Tolosako Udala izan da. Idazkuntza taldea ERDU izan da.

Dokumentuak hasierako onespena jaso zuen 2016ko uztailaren 26an (149.GAO, 2016ko abuztuaren 5an). Alegazioak egiteko epea 2016ko irailaren 15era arte iraun zuen.

ARLOKO TXOSTENAK

EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILAREN TXOSTENA

2016ko abuztuaren 8an, Tolosako Udalak Aldaketaren bigarren Hasierako Onespenari buruz eskatutako hirigintza-txostena igortzen da. Txostena aldekoa da.

Zuzendu beharreko hurrengo alderdi lotesleak mahaigaineratzen dira:

- 7. Artikulua - Partzelazioak aldatu dadila
- Done Jakue bidearen trazadura zuzendu dadila
- 34. Artikulua - Gainjarritako baldintzapena: Done Jakue Bidea aldatu dadila

Txostenak hainbat gomendio eta balorazio eratzen ditu. Horien zati bat behin behineko onespenaren dokumentuan sartutako da.

UR AGENTZIAREN TXOSTENA

2016ko irailaren 6an, Tolosako Udalak eskatua, Ur Agentziak Aldaketaren bigarren Hasierako Onespenaren dokumentuari buruzko Hirigintza-txostena igortzen du (IU-G-2013-0020 Espedientea). Txostena aldekoa da.

KANTAUARIKO KONFEDERAZIO HIDRAULIKOAREN TXOSTENA

2016ko abuztuaren 30ean, Tolosako Udalak eskatua, Ur Agentziak Aldaketaren bigarren Hasierako Onespenaren dokumentuari buruzko Hirigintza-txostena igortzen du (ICA/20/2014/2012 Espedientea). Txostena aldekoa da.

HASIERAKO ONESPENAREN BIGARRENGO BERTSIOARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Jendaurrean jarritako epean, alegazio bat jaso zen, Oyarbide Hostatuari buruzkoa. Honakoak ekarri ziren:

- Ekialdeko eta hegoaldeko gorputzak finkatzea eta antolamenduz kanpo ez izendatzea.
- Kontuan hartzea Planaren onspena eragozten duten arrazoiak daudela (bideragarritasun ekonomiko eza eta beste hainbat).
- Kontuan hartzea antolamenduz kanpo izendatutako elementuen merkatuko prezioa baloratu beharko zela (hego-eraikinaren lehenengo solairuan etxebizitza bat dago, eta beste biak ostatu emateko erabiltzen dira- ustiapen komertziala-).


Alegazioaren zati bat baietsi da. Antolamenduz kanpo izendatutako elementuen jardunari uztea baloratu da; era berean, bideratze berriaren obra egikaritze unitateari egotz ez daitekeen sistema orokortzat hartzea proposatu da.

HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

ORIA IBARIAREN UBIDERATZE-HORMAREN TRAZADURA


Euspen-horma bertikal baten bitartez Oria ibaiari eman nahi zaion ubideratze berria Plan Bereziaren Aldaketa baldintzatzen duen elementua da; soto-solairuko berrantolamenduan (aparkalekua) eta "D" eraikinaren lerrokaduretan duen ondorioengatik, funtsezko elementutzat jotzen da Aldaketaren edukian eta justifikazioan.

Marraketa lerromakurreko eta aparkalekurako soto-solairuko 5 metrotako atzeramangunea duen trazaduraren gainjarritako baldintzapen berriek (Elkarkidetzaren Protokoloan ezarriak) Plan Bereziak aurreikusitakoaren arabera egikaritzea eragozten dute.



Bere garapenaren ezinagatik, Tolosako Udalak tramitatutako dokumentuetan (Aurrerakina eta lehenengo Hasierako Onespena) lanaren aurreko bertsioetan adierazi diren Protokoloa sinatu aurreko proposamen desberdinak landu ditu.

Gaur egungo egoera ezagutzeko, 2010. urtean, lehendik zegoen hormaren eta kanal zaharraren hondarren jasotze topografiko bat burutu zen.



Aldaketaren lehenengo Hasierako Onespenaren kasuan, proposamenak aurretik zegoen ubideratze horma aprobetxatzen zuten. Eremuaren hego muturrean, hormaren zuzenketa proposatzen zen oinezkoen igarotzea ahalbidetzeko (ibai-ibilgu ertzetik pasealekua). "D" eraikinaren berrantolamenduarentzako lerroakadura berriak (baina murriztuak) ere azaltzen ziren.

Eremuaren ipar muturrean horma berriro definitzea planteatzen zen, Arremeleko Zubiaren muturrera egokitzeko.

UR Agentziako teknikoez konponbide hori baieztatu zuten, eta proposamena egokia kontsideratu zuten.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak burututako oharrei dagokienez, (izan dezakeen ondare-balioagatik, aurretik dagoen ubideratze horma mantentzea), aurretik ikusgarri dagoenaren analititik ez zen balore nabarmenenik azpimarratzen. Hala ere, hasierako onespenaren lehenengo bertsioak, Urbanizazio Proiektuaren garapenean, interesa eduki zezaketen tartek mantenduko zirela zehazten zuten. Besteak beste, 1998ko otsailaren 12ko Aginduaren arabera Tolosako Hirigune Historikoaren gune arkeologikoa Murtzo Monumentala mailan Ondare Kulturala bezala jasotako izendapenean bildutako zedarripenari kasu eginez.



Aldaketaren Hasierako onespenaren lehenengo bertsioan proposatutako horma-trazadura


Aldaketaren azken irtenbideak gaur egungo ubideratze horma atzeramaten du. Aukera horrek D eraikinaren tamaina baldintzatzen du. Hala eta guztiz ere, ubideratze hormaraino lerrokatu ahal izango da.

Ibai-ibilgu ertzeko pasealekuaren desagerpena edo zabalera eskasa orekatzeko, 1,50 eta 2,50 metrotako bi hegal garatu ahal izango dira. D eraikinak behe-solairua 1,5 m atzera eraman ahal izango du.


Hormaren goiko kota eta ezaugarri teknikoak Eraikuntza Proiektuan definituko dira.

Azkenik, soto-solairuko aparkalekua ubideratze hormaraino lerrokatu ahal izango da. Ubideratze horma eta aparkalekukoa berbera ahal izango da.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak burututako oharrei dagokienez (izan dezakeen ondare-balioagatik aurretik dagoen ubideratze horma mantentzea), ezarritako mugapen berriarekin bateragarria izatekotan, eraikuntza eta historiaren aldetik balorea duten ubideratze-hormaren atalak mantenduko dira.



Hurrengo grafikoan, Plan Bereziak gaur egun definitzen duen hormaren trazadura, dagoena eta Plan Bereziaren Aldaketak proposatutakoa gainjartzen dira.



PROPOSATUTAKO ERAIKUNTZA UNITATEAK

APARKALEKUA (SOTO-SOLAIRUA)

Aparkalekurako eta instalakuntza teknikoetarako, soto-solairuaren antolamendua Oria ibaiaren ubideratze mugapen berrira egokitzen da. Protokoloaren arabera (Tolosako Udalak eta Kantauriko Konfederazio Hidraulikoak izenpetua), ez da bere lerrokaduraren atzeramangunea ezartzen. Horma komuna izango da.


Hartutako irtenbidea Plan Bereziaren antolamendua berriro definitzen du, hurrengo arrazoiengatik:

- Aparkaleku azaleraren murrizketa nabaria; aparkalekuaren bidegarritasuna saihesten duen ubideratze marra berriak baldintzatua.
- Plan Berezian espazio publikoan kokatutako sarrera eta irteerako bi arrapalen bitartez konpondutako aparkalekuko sarbideak berriz aztertzea. Aparkalekuaren neurri berriaren ondorioz, irteerarentzako eta sarrerarentzako balio duen arrapala bakarra nahikoa kontsideratzen da.
- Sarrera eta irteera arrapalaren kokapena aldatzen da, eraikiaren bolumetriaren barne uzteko. Espazio publikoaren okupazioa atzera botatzen da, Hirigune Historikoaren inguruan falta baita.
- "A, B, eta C" Eraikuntza Unitateen eta egituraren arteko arrazionalizazio eta konbinazio egokia, egiturazko konponbide bereziak eta egikaritze gain-kostua saihesteko.
- Indarrean dagoen Plan Berezian kanal zaharraren zehar (Oria ibairekiko paralelo) Andra Mariko aparkalekuarekin aurreikusitako soto-solairuko lotura atzera botatzea.
- Uholde arriskua gerta ere, uholde-sestra azpitik sarbidea ezartzen zaien solairuetan UR Agentziak gomendatutako neurriak hartzea.
- Aldaketatik Suteen Aurkako Babeserako (SAB) neurrien gutxienezko aurreikusia.

Emaitzako aparkalekuak 1.531,79 m²tako gutxi gorabeherako azalera du. Gutxienez 39 aparkaleku-plaza lortzea ahalbidetuko zuen. Hala ere, aparkalekuaren oina eta banaketa orientagarriak dira, eta azalera handiagoa eduki ahal izango du.

Iradokizun gisa, dokumentazio grafikoan irtenbide bat garatzen da eraikuntza motarako hutsarte egokiak (batez besteko 5,00 metrotako hutsarteak) dituen egitura batekin, goi-solairuetako Etxebizitza unitateentzat baliozko egitura-eskema baten arabera diseinaturikoa.

Suteen Aurkako Babesaren ebakuazio irteerak eta aireztapen instalakuntzak, ahal izanez gero, "A, B eta C" Eraikuntza Unitateen komunikazio guneen osagarri jarriko dira. Hau da, eraikuntza horien inguratzailean. Indarrean dagoen araudia betetzeko beharrezkoa izatekotan, espazio publikoan ebakuazio eta aireztapen elementuak jarri ahal izango dira.



OYARBIDE HOSTATUA (LEHENDIKAKOA)

Eraikuntza finkatu nahi da, Plan Berezian ez bezala (eraikuntza "antolamenduz kanpo" izendatzen zen). Bere izendapena "A" Eraikuntza Unitatea izango da, Plan Berezian aurreikusitako ordezeko eraikuntzaren izenkide.

Hegoaldeko fatxadan (4 solairu) eta ekialdeko fatxadan -edo eraikuntzaren atzealdean- (solairu 1) erantsitako gorputzen "Antolamenduz kanpo"-ko izendapena mantentzen da.

Plan Bereziaren 304,53 m² ko oin-okupazioa, Aldaketan, 284,78 m²tan zenbatzen da.

Bolumetria B+3 solairutakoa izango da, guztiak era berekoak, Plan Bereziak planteatutakoa ez bezala (bere 3. eta 4. goi-solairuak iparraldeko fatxadan atzeramaten ziren). Plan Bereziak eraikuntzan paretazko erloju bat sartzea eta Hirigune Historikoaren sarrera ateko kopia bat eraikuntzara eranstea jasotzen zuen.

Finkatzen den eraikuntzak, behe-solairuan, ezin izango ditu portxe estaliak eduki.

Irtenbide hori bateragarria da 217/2004 Dekretuarekin, azaroaren 16koa, Tolosako (Gipuzkoa) Hirigune Historikoa, Monumentu Miltzo izendapenez, Saikaturako Kultura Ondasun deklaratzeko eta haren babes-araubidea onartzeko den Dekretuari aldaketa egitea xedatzen duena. 450/1995 Dekretuaren I Eranskinaren 16.2 artikulua 2. paragrafoaren proposatutako aldaketak zehazten du:

«Gorriti plaza, Agintari kaleko 33 zenbakitik Gorriti plazarainoko tartea, Santa Maria kaleko bukaera eta Ori ibaiko ezker aldea hartzen duen eremua hirigintzari eta arkitekturari dagokienez nahiko hondatua dagoenez, bertako hiri-ehuna eraberritzera bideratutako bidezko jarduerak egiteko baimena emango da, horretarako ondoko baldintza hauek bete beharko direlarik:

(...)

– Gorriti Plazako 1. zenbakidun etxea mantentzea (ez haren beheko solairuan dauden eranskinak) edo, hala badagokio, hura dagoen lekuan berri bat eraikitzea, plazak hartzen duen gaur egungo espazioa ere mantendu beharko delarik, ibaiari itxita

(...)

EGOKITUTAKO ERAIKUNTZA UNITATEAK

Aldaketa honek lerrokadura berriak planteatzen ditu hiru Eraikuntza Unitateentzako (B, C eta D). Oyarbide Hostatua finkatzen da (erantsiak ezik).

“B” ERAIKUNTZA UNITATEA

Eraikuntzak bere eraikigarritasuna eta boluetria handitzen du. Lerrokadura berriekin, indarrean dagoen plan Bereziaren 319,75 m²-tako oin-okupaziotik, behe-solairuan 439,17 m²tako eta goiko solairuetan 474,44 m²tako okupazioa izatera pasatzen da.

Eraikuntza luzeagoa lortzen da, Hirigune Historikoaren bilbearekin bat datorrena.


Zergati nagusia soto-solairuko sarbide arrapala barne-boluetrian sartzea da. Bere oin-okupazioa 176,75 m²takoa da. Arrapala bikoitza aurreikusten da: goranzkoa (10%koa gutxi gorabehera), tranpala eta beheanzkoa (16%koa). Arrapala bikoitz hori badaezpadako neurri bat da urpean geratzeko arriskuaren aurrean. Hala ere, parametro horiek orientatzaileak dira: eraikuntzaren eta aparkalekuaren Egikaritze Proiektu desberdinen garapenetan doitu ahal izango dira. Aparkaleku sarbide atearen baldintza estetikoek dagokienez, zura naturalezkoa izango da.

Eraikuntzak komunikazio gune bakarra izango du, sarbide arrapalaren mugapenak direla eta. Igogailua zuzenean lotuko du soto-solairuko aparkalekuarekin.

Behe-solairuan, portxe estalia, lineala eta metro bateko zabalera jarriko da. Planteamendua indarrean dagoen Plan Bereziaren antzekoa da (dokumentazio grafikoaren zehaztapenen arabera).

Iradokizun gisa, dokumentazio grafikoan eraikuntza motarako hutsarte egokiak (6m baino txikiagoak) dituen egiturazko eskema bat garatzen da.

Era berean, iradokizun gisa, komunikazio gunea marrazten da. Sarrera komunikazio gunera eraikuntzaren alboan dagoen kantoitik debekatzen da.



“C” ERAIKUNTZA UNITATEA

Eraikuntza unitate honek bere azalera murrizten du, “B” eraikuntzaren handitzearen ondorioz. Plan Bereziaren 339,81 m²tako oin-okupazioa, Aldaketan, behe-solairuan 229,53 m²tan eta goiko solairuetan 237,04 m²tan zenbatzen da.

Hala ere, lerrokadurek Plan Berezian aurreikusitako izaera mantentzen dute. Aurretik dagoen eraikuntzaren mehelina eransten da, eta ekialdeko fatxadan aurreikusitako atzeramangunea errepikatzen da.


Bere azaleraren murrizketa dela eta (Plan Berezian aurreikusitakoarekin alderatuz), eraikuntzak komunikazio gune bakarra izango du. Igogailuak zuzenean lotuko du soto-solairuko aparkalekuarekin.

Behe-solairuan, portxe estalia, lineala eta metro bateko zabalerakoa jarriko da. Planteamendua indarrean dagoen Plan Bereziaren antzekoa da (dokumentazio grafikoaren zehaztapenen arabera).

Iradokizun gisa, dokumentazio grafikoan eraikuntza motarako hutsarte egokiak dituen egiturazko eskema bat garatzen da (batez besteko hutsarteak 5,80m baino txikiagoak).

Alboko eraikuntzaren mehelinan dagoen eskora-egitura azpimarratzen da. Aparkalekuko soto-solairuan zein goiko solairuetan, eraikuntzak eskora-egiturak okupatzen duen azalera okupatu ahal izango du. Dena den, Egikaritze Proiektuek egonkortasuna ziurtarazi beharko dute. Aldaketa dokumentu honek soto-solairuko aparkalekuaren eta eraikuntzaren sostengu-elementu bertikalen egikaritzea kontsideratzen du. Baina mehelinatik atzera emanak; geroago, egiturarekin hegal bitartez lotzeko. Konponbide hori obren egikaritzea segurtasunez ahalbidetzen duela kontsideratzen da; dena dela, orientagarria besterik ez da.

Era berean, iradokizun gisa, komunikazio gunea marrazten da. Sarrera Komunikazio gunera eraikuntzaren alboan dagoen kantoitik debekatzen da.



“D” ERAIKUNTZA UNITATEA


Eraikuntza Unitate honen azalera murrizten da, ubideratze horma berriaren ondorioz. Plan bereziaren 259,72 m²tako oin-okupazioa, Aldaketan, behe-solairuan 245,98 m²tara eta goiko solairuetan 225,34 m²tara murrizten da.

Hala ere, lerrokadurek Plan Berezian aurreikusitako izaera mantentzen dute: Andre Mari kaletik datorren hiri-bilbepearen amaiera bezala, eta Oria ibai-ibilgurantz eta pasealekurantz aurrealde bezala. Behe-solairuan 1,5 metrotako atzeramagunea planteatu ahal izango da (dokumentazio grafikoaren arabera).

Andre Mari kaleko eraikuntzaren mehelinari dagokionez, eraikinaren tratamendu berria azpimarratu behar da. Plan Bereziak goiko solairuetako atzeramangune jarraitua proposatzen zuen. Baina, antolamendu berriak eraikuntza aurretik dagoen eraikuntzari eransten du, mehelinan dauden aireztapen eta argiztapen zuloak mantendu ahal izateko fatxada irekiko patio bat jartzeko salbuespenarekin, baita aurretik dauden bere instalakuntza elementuak (aireztapen tximinia, etab.)

Iradokizun gisa, dokumentazio grafikoan, eraikuntza motarako hutsarte egokiak dituen egiturazko eskema bat garatzen da (batez besteko hutsarteak 6m baino txikiagoak). Igogailuak zuzenean lotuko du soto-solairuko aparkalekuarekin.

Iradokizun gisa, komunikazio gunearen posizioa marrazten da. Sarbidea Andre Mari kaletik egingo da.



URBANIZAZIO IRISPIDEAK

Urbanizazioaren elementu nabarmenenak Fernando Gorriti Plaza (bere inguratzailea ez da aldatzen gaur egungo egoerarekin alderatuz) eta Ori ibai ertzeko pasealekua dira. Plan Bereziarekin konparatuz, murriztu edo irtenean jarri arren, hiri-bilbe jarraituaren barne aurretik dauden pasealekuei jarraiera ematekoa asmoa mantentzen da.

Azpinarratu beharra dago, kantoia handitzea ("B" eta "C" Eraikuntza unitateen artean), 4,25m linealetako luzaeraraino. Horrek bi eraikuntzen etxebizitzetan argiztapena, aireztapena eta bista zabalera hobetoak izatea ahalbidetuko du.

Aldaketatik zabor-edukiontzientzako berariazko gunea ustea gomendatzen da. Kamioen karga albotik errazteko jarriko dira (beren eskuineko albotik), eta gehieneko urruntasunen aurretik dauden eta proiektatzen diren etxebizitza berriengandik. Ibilgailu astunen zirkulaziorako zoladura egokia jarriko da.

Hiri-altzariak jarriko dira: zakarrontziak, bankuak, loreontziak eta antzekoak. Elementu horiek ibilgailu-zirkulaziorako espazioa modu integratuan mugatuko dute. Aurretik dauden instalazioen desbirapena hausnartuko da.



Ubideratze hormaren irudi orokorra




Oyarbide Hostatuko atzeko fatxada



Ubideratze hormaren xehetasuna



Ubideratze hormaren xehetasuna




Ubideratze hormaren xehetasuna



Ubideratze hormaren xehetasuna



Ubideratze hormaren xehetasuna



Ubideratze hormaren xehetasuna

KUKEAKETA IRIZPIDEAK

Indarrean dagoen Plan bereziak Egikaritze-Unitate bakarra (4.813 m²-ko azalerakoa) eratzen zuen, eta eraikuntza unitate guztien "planeamenduz kanpoko" izendapena, Arremeleko Zubiarena ezik (babes maila ertain batekin finkatzen zen). Hala era, Aldaketak Oyarbide Hostatuaren gorputz nagusia finkatzen du, 284,78 m²-ko oin-azalerakoa.

Aldiz, Aldaketak Oyarbide Hostatuko gorputz erantsiak Egikaritze-Unitate Bakar baten barne sartuko ditu. Gorputz horiek eraitsi egingo dira. Eta aurretik (Tolosako Udalak) eraitsitako eraikinen lurzoruetara gehituko dira, Plan Bereziak "antolamenduaren kanpoz" izendatzen dituela kontuan harturik.

Jarduketa-sistema, Plan Bereziaren Aldaketa honetan, itun-sistema da.

ERAIKIGARRITASUN PARAMETRO KONPARATUAK

Ondoren, gaur egungo Plan Bereziaren eta Aldaketan aurreikusitako azalera alderatzen dira. Bai sestra azpiko eraikigarritasuna bai sestra gainekoa murriztu egiten dira, Plan Bereziaren aurreikusitakoarekin konparatuz. Gainera, A eraikuntza-unitatea sendotzen delaren berezitasunarekin.

- Soto-solairua:

Indarrean dagoen PB	4.761,00 m ²
Aldaketa	1.531,79 m ²
	-3.229,21 m ²

- Behe-solairua:

	A Eraikina	B Eraikina	C Eraikina	D Eraikina	Guztira
Indarrean dagoen PB	304,53 m ²	319,75 m ²	339,81 m ²	259,72 m ²	1.223,81 m ²
Aldaketa	284,78 m ²	439,18 m ²	229,54 m ²	245,98 m ²	1.199,46 m ²
		(Arrapala 176,75 m ²)			-24,35 m²

- Goi-solairuak:

	A Eraikina	B Eraikina	C Eraikina	D Eraikina	Guztira
Indarrean dagoen PB	1.243,02 m ²	1.417,48 m ²	1.359,24 m ²	1.088,68 m ²	5.108,42 m ²
Aldaketa	854,34 m ²	1.897,76 m ²	948,16 m ²	901,36 m ²	4.601,62 m ²
					-506,80 m²

HIRIGINTZA-ESTANDARRAK

Plan Bereziaren Aldaketak xede du jabari publiko hidraulikoan sartzen ez den ubideraze-horma baten eraikuntza-eskakizunei egokitzea. Parametro konparatuen arabera, aurretik ikusitako eraikigarritasuna murrizten da. Ondorioz, eta, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 105. Artikuluan, "Hirigintza-planek ezarritako antolamendua aldatzeko eta berrikusteko mugak", xedatutakoarekin bat etorritik, ez da egokia zuzkidura publikorako edo beste hirigintza-estandarretarako lurzorua gehiago aurreikustea.

II – ARAUDIA – TESTU EGOKITUA

ORDENANTZAK

A) TRAZADURA, ERABILERAK, PARTZELACIOA ETA HIRITARTZEA

Eraikuntzaren lerrokadurak

1. Artikulua. - Antolatzen diren eraikinak, Aldaketa honen A-B-C saileko planoetan eta antolaketa-grafikoetan ezarritako lerrokaduretara egokitu beharko dituzte beren oin guztiak.

Sestra gaineko eraikuntzetan, planoetan adierazitako lerrokadurak derrigorrezkotzat hartuko dira (bai behe-solairuetan baita goi-solairuetan ere). Soil-soilik aldaketa honen A-B-C Saitetako planoetan adierazitako aparteko kasuetan, halako tolerantzia bat onartuko da, betiere, adierazi diren gehieneko lerrokadurak inoiz gaitutuko ez diren moduan.

B eta c eraikinen kasuan, halako tolerantzia bat onartuko da eraikuntzak har dezakeen kanpoko lerroan (kale berri alderako fatxadetan, gorputz irtenen edo hegalean bitartez). Hala eta guztiz ere, Udalak zenbait lerrokadura-proposamen arrazoiz uka ditzake baldin eta irregularrak direlako (edo ondoko eraikinekin bateraezinak direlako edota kale-bidearekin bat ez datozelako) desegokiak badira. Horrelakoetan, tolerantzia erabiltzen bada, eraikinaren lerrokadurak trazatuta daudenean eta eraikuntza proiektuak bidezko udal lizentzia jasotzen duenean, eraikinaren lerrokadurez kanpo geratzen diren eremu guztiak lur gainean erabilera publikoa izango dute ondorio guztietarako.

D eraikinaren kasuan, behe-solairua gehienez 1,5 m atzeratu ahal izango da (dokumentazio grafikoaren arabera). Zoladuraren tratamendua ubidaratzearen gainean erabilitakoa bezala izango da, ibilbide bateratua osatuz. Goi-solairuetan, antolatutako patioaren aurrealdean (4,90m-tako luzeran) fatxada jarraian irakurri ahal dadin itxi egingo da.

Sestra-azpiko eraikuntzari dagokionez, eraikinaren lerrokadurak gorabehera batzuk izan ditzake (dagokizkien Egikaritze-proiektuen beharren arabera moldatu ahal izango dira). Oria ibaia ukitzerakoan, aparkalekua ibilguarekin lerrokatu ahal izango da. Horma partekatatu ahal izango dute.

Sestrak

2. Artikulua. - Kale-bideen eta erabilera publikoko bide eta eremuen sestrak aldaketa honen B Saileko antolaketa planoan adierazitakoak izango dira. Kotatutako puntu guztiak oztoporik edota irtenunerik gabe lotuko dira.

Eraikinen erabilerak

3. Artikulua. - Antolatzen diren eraikinen beheko oinetan egoitzaz bestelako erabilerak garatu ahal izango dira, indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauetan ezarritako baldintzetan; esate baterako, merkataritza erabilerak, bulegoak, osasun eta laguntzarako erabilerak, erabilera soziokulturalak, erlijiosoa, aisialdirako, kirolak, instituzio eta zerbitzu publikorakoak, eta lehen kategoriako industria (behe-solairuan ez dira logelak onartuko, bizitegi-erabilera baitute). B eraikinaren kasuan, aparkalekurako sarbide-arrapala soto-solairuan kokatu daiteke.

Debekatuta daude dantzalekuak, diskotekak eta antzekoak, hau da, gaez jendetza erakartzen duten eta isolagaitzak diren zarata eta bibrazio mailak sortzen dituzten lokalak.

4. Artikulua. - Eraikinen lehen oinean honako erabilerak onartuko dira: Etxebizitza, merkataritza, bulegoak, osasun, laguntza, soziokulturala, ikaskuntza edota instituzio eta zerbitzu publikoak. Merkataritzako erabilera jendeari zuzenean saltzera mugatzen bada, behe-solairuan ezarriko da beti (lehenengo solairuan ere jarduera horren osagarri gisa egokitu ahal izango baina, kasu horretan, bi oinak barrutik komunikatuko dituen eskailera ezarri beharko da). Lehenengo solairuan soilik ezar daitezkeen merkataritza erabilerak ezartzekotan, horiekin batera bestelako zerbitzu publikoak ipini beharko dira (jaketxeak, ile-apaindegiak, jostundegiak edo antzekoak); hau da, ondasunak edo zerbitzuak saltze hutsa baino jarduera konplexuagoak, alegia.

Horiez gain, lehenengo solairuetan aisialdi erabilerak, soziokulturalak eta lehen kategoriako industriak ere onartuko dira baldin eta behe-solairuan jarduera bera garatzen bada eta horren osagarri gisa ezartzen badira. Kasu horretan, dena den, bi oinak barrutik komunikatu beharko dira. Lehenengo solairuetan, halaber, ostatu-erabilera ere onar daiteke; esate baterako, etxebizitza partikularrerako eraikinen lehen oinetan ostatu txikiak ezar daitezke, edo baita eraikin bereko beste oinen osagarri ere, erabilera hori garatzen badute.

5. Artikulua. - Erabilera partikularreko eraikinetan, lehen solairuaren gaineko solairuetan etxebizitza erabilerak ezar daitezke. Era berean, ostatu-erabilera ere onartuko da baldin eta beren azpiko solairuak etxebizitzarako bideratzen ez badira. Erabilera soziokulturalak, instituzio eta zerbitzu publikoak ere onar daitezke baldin eta eraikin osoan erabilera bera garatzen bada.

6. Artikulua.- Kale-bideen eta erabilera publikoko bide eta eremuen sestra azpian antolatutako eraikuntzan ibilgailuak gordetzeko aparkalekuak, etxebizitzaren eta/edo aparkalekuen zerbitzurako trastelekuak eta instalakuntza-gelak bakarrik onartuko dira.

Partzelazioa

7. Artikulua.- Plan honen eremuko kale-bideen sestra azpian antolatzen den eraikuntza ezin izango da zatitu, eta aparkalekurako lokal bakar bat osatuko du.

Sestra gainean antolatutako eraikuntzak lau unitatetan eratzten dira, elkarren artean erabilera publikoko eremuez banandurik; beraz, unitate horiek ezin izango dira elkartu.

B,C eta D Eraikuntza Unitateen kasuetan, eraikuntzaren zatizko irakurketa bermatu behar da, Agintari kaleko mehelin-tipologiari jarraipena emanez. Asmo horrekin, lurzatiak eta fatxadak zatikatuko dira

Partzelazio-baldintzak honakoak izango dira:

- Gutxieneko azalera: 80 m².
- Eraketa: lur-zatiak gutxienez bi ez jarraiko kaleetara edo bideetara begira geratuko diren fatxadak izango ditu
- Gehieneko lurzati-aurpegia: lurzati-aurpegi bakoitzak hamabi metroko luzera izango du gehienez.
- Partzelazio-baldintza hauek eraikuntza, funtzionaltasuna eta ekonomiaren aldeko bidegarritasunaren mende jartzen dira. Ez beharrezkoak izan daitezke komunikazio gunearen eraginak eraikuntza unitate bakoitzean solairu bakoitzeko etxebizitzaren batez besteko azaleraren %15a gainditzen duenean

Fatxada-baldintzak honakoak izango dira:

- Gutxieneko fatxada: Lur-zatiaren bide publikoaren beste aldera ematen duen fatxada bakoitzak sei metroko luzera izango du gutxienez.
- Gehieneko fatxada: Lur-zatiaren bide publikoaren beste aldera ematen duen fatxada bakoitzak hamabi metroko luzera izango du gehienez.
- Fatxadaren zati bateko tratamendu bateratua burutuko da, gutxienez ez jarraiko bi kale edo bideetan.

Hiritartzea

8. Artikulua.- Plan honen espazio libreak, kaleak eta oinezkoen pasealekuak urbanizatzeko, dagokion administrazio-tramitazioa bete beharko duen bidezko Urbanizazio Proiektua eduki behar da.

Ezarritako mugapen berriarekin bateragarria izatekotan, eraikuntza eta historiaren aldetik balorea duten ubideratze-hormaren atalak mantenduko dira. Urbanizazio Proiektuaren garapenean euren balioa nabarmenduko da, ikustarazi dezaten ibiltzeko moduko beirazko elementuen, argiztapen elementu berezien eta beste hainbaten bitartez.

Oria ibai-ibilguaren gainean bi hegal garatu ahal izango dira. A eta D eraikinen inguruan jarriko dira. Neurriak Antolamendu planoetan marraztutakoak izango dira.

Antolamenduz kanpoko eraikinak

9. Artikulua.- Antolamenduz kanpoko eraikuntzak Gorriti Plazako 1. zenbakian kokatutako eraikinaren erantsitako bolumenak dira. Bere bolumetria nagusia finkatzen da. Antolamenduz kanpoko eremuko beste eraikinak eraitsi egin dira. Eraikigarritasun berriaren banaketak lehenik eraitsitako eraikinen finkatu eta finkatu gabeko eskubideak kontuan hartu beharko ditu. Eraikin horiek honakoak dira:

- Santa Maria kalea, 20
- Agintari kalea, 39, 41, 43 eta 47

B) ERAIKITAKO ONDAREAN ESKU-HARTZEKO MODUAK

Esku-hartze motak

10. Artikulua.- Ordenantza desberdinak finkatu dira Plan honen aplikazio esparruko obra edo orube bakoitzean egokiena gerta daitekeen jarduketa motaren arabera. Ordenantza horiek arautzen dituzte, kasuak kasu, orube horietako bakoitzean burutu daitezkeen esku-hartzeen ezaugarriak eta baldintzak. Honako mota hauek bereizten dira::

- Kontserbazioko ordenantza
- Berritzeko ordenantza

11. Artikulua.- Planaren aplikazio esparruko obra eta orubeetako jarduketari aplikagarriak zaizkion ordenantzen

erregimenaren barruan, eta bakoitzaren baldintza partikularren arabera, «Eraikuntza Unitateen Fitxak» izeneko dokumentuan zehaztuta daude obra edo lur-zati bakoitzean baimenduko diren obra motak; betiere, Eusko Jaurlaritzaren 217/2002 Dekretuaren I. Eranskinean, Ondare Hirirtatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzkoan, ezarrita dauden definizio eta edukiaren arabera.

Kontserbazioko ordenantza

12. Artikulua.- Helmena eta edukia

Ordenantza honen barruan sartzen da Arrameleko Zubiaren obra. Obra Monumentu historiko-artistiko baldintzarekin sartu zen eta «Babes ertaineko Kontserbazio» mailaz babestuta dago.

Eraikin hori ezingo da eraitsi, ez osorik ezta zatika ere, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeko 36. artikuluan ezarritako baldintzetan izan ezik. Betekizun hori hausten bada, eraikina oso-osorik berreraiki beharko da derrigorrez.

Eraikin horretan baimenduko diren esku-hartzeek, eraikuntzaren eite, tipologia eta egiturazko ezaugarrien balioa areagotuko dute. Aldi berean, eraikuntza erabat berreskuratzeko bidea emango dute, honako irizpide hauen arabera burutuko baitira:

- Itxura arkitektonikoari dagokion balioa ematearren, honako esku-hartzeak burutuko dira: eraikuntzaren jatorrizko balioak berreskuratuko dira, bere fabrika elementuak eraberrituz; obra finkatu egingo da, berreskuraezinak diren zatiak ordeztuz baina egitura eusleen eta gangen posizioa edo kota aldatu gabe; eranskin degradagarriak ezabatu egingo dira berriki egindako edozein obra bezalaxe, baldin eta inolako interesik gabeko obrak badira edota eraikuntzaren nahiz eraiketa-unitatearen jatorrizko ezaugarri arkitektonikoekiko bateraezinak badira edota inguruneke itxura kaltetzen badute; eta, beharrezko instalazioak ipiniko dira, baldin eta arestian aipatutakoa errespetatzen bada.

Ordenantza honen barne Gorriti plazako 1. zenbakian dagoen erakina sartzen da. Berari erantsitako eraikuntzen eraispena aurreikusten da. Kasu honetan eraikitakoaren sendotze jarduketak onartzen dira, eraikitako azaleraren, altueraren edo solairu kopuruaren handitzerik gabe.

Edozein kasutan, «Eraikuntza-Unitateen Fitxak» izeneko atalean berariaz finkatutako zehaztapenak beteko dira

Berritzeko ordenantza

13. Artikulua.- Helmena eta aplikazio esparrua.

Ordenantza hau Planak hartzen duen eremuan antolatutako eraikinetako oin berriko obretan aplikatuko da. Kontserbazioko ordenantzaren eraginpeko obrak salbuetsiko dira.

Oin berriko eraikuntzak, bere ezaugarriengatik, proiektu koordinatu baten helburu izan behar du. Zehazki, sestra gaineko pasealeku publikoan aurreikusitako eraikuntzen proiektua udal-lizentziaren eskaeran aurkeztu behar da. Bertan, eremurako etar erabilera desberdinetarako zehaztutako eraikigarritasun-baldintzak ziurtatu beharko dira.

14. Artikulua.- Eraikuntzaren altuera eta oin kopurua.

- 1. Eraikuntzak gehienez ere 15,50 metroko altuera izango du kale-bidearen sestra gainean.
 - Fatxada bakoitzean altuera hori neurtzeko, Tolosako HAPOan oro har ezarritakoari jarraituko zaio.
 - Erlaitza, teilatu-hegala edo eraikinaren erremate garaiena altuera berean kokatuko da oin kopuru bera hartuko duen orube bakoitzeko fatxada edo fatxada-zati guztietan
- 2. Eraikuntzak gehienez ere beheko solairua (B) eta beste lau goi-solairu (+4) izango ditu sestra gainean. Hala ere, arau hori betetzetik salbuetsita geratuko dira Aldaketa honen dokumentazio grafikoan kasu bakoitzerako xedatuta dauden zehaztapenetan berariaz adierazitako eraikin zatiak.
- 3. Antolatutako hedapenean, Kale-bidearen sestra azpian aparkalekurako oin bat baimenduko da.

15. Artikulua.- Oin desberdinen gutxienezko altuera libreak

- 1. Sotoa
 - 2,50 metrokoa izango da.
 - Elementu isolatu irtenen aitzakiaz (eraikuntzaren egitura edota instalakuntzak) altuera libre horrek ez du inoiz 2,20 m-tik behera egingo aipatutako elementuen azpian. Dena den, altuera murrizteko aukera hori ez da soluzio orokor gisa erabili ahal izango.
- 2. Behe-solairua
 - 3,20 metrokoa (garajeko sarbideei dagokienez, 2,50 metroko gutxienezko altuera ezartzen da)
- 3. Goi-solairuak
 - 2,60 metrokoak izango dira.
 - Etxebizitzarako oinetan altuera hori 2,20m arte murriztu ahal izango da egongela, jangela, sukalde

edo logela izango ez diren espazioetan.

- 4. Behe-solairuaren zorua, sarbidea ematen dion bide publikoaren sestra berean egongo da. Gehienez ere, hoguei (20) zentimetroko gorabehera onartuko da kale horren sestrarekiko. Eraikin baten fatxadetako sestrak desberdinak izatea ez da aitzakia arestian aipatutakoa ez betetzeko. Hau da, fatxada nagusian ez ezik bigarren mailako fatxadetan ere beheko oinaren sestraren arau hori bete egin beharko da gutxienez 5 metroko sakoneran.
- 5. Eraikinaren oin bakar batean ere ez dira onartuko oin-arteak edo solairuarteak.

16. Artikulua.- Fatxadak

- 1. Fatxadak laukizuzen formako kofaduren antolaketa erregular batekin diseinatuko dira oro har, ardatz bertikal komunaren arabera moldatuak. Kofadura bakoitza, bestalde, posizio bertikalean proiektatuko da.
- 2. Ardatz bertikala esatean, kofadura multzo bateko ardatz bertikal komuna gainjarritako kofaduren segida bereko erdigunetik pasatzen den lerro irudikaria ulertuko da. Fatxada berean, kofaduren ardatz bertikalak beraien artean distantzia bera gordez jarriko dira. Distantzia hori ez da 2,20 metro baino gutxiago izango, ezta 3,50 metro baino gehiago ere. Aparteko kasuren batean, benetako arrazoiak daudenean eta ordena orokorrera egokitzea ezinezkoa denean, tarte hauetako bakarren bat besteekiko ezberdina izan daiteke.
- 3. Eraikinen izkinetan ez da kofadurarik irekiko. Horregatik, ardatz bertikalak fatxadako planoetan kantoietatik aparte ipiniko dira, hauetan irekitzen diren kofadurek delako kantoiekiko gutxienez 60 cm-ko distantzia mantentzen dezaten behe-solairuan eta 80 cm-koa goikoetan. Fatxadaren antolaketa orokorreko ardatz bertikaleko bat ez da ardatz gisa hartu beharrik izango (ondoko 17. artikuluan jasotakoaren ondorioz) antolaketa orokorreko sistematik ondorioztatutako elkarren ondoko bi kofadura hipotetikoak batzen dituzten beheko oineko kofaduretan. Soto-solairuko aparkaleku-sarbidearen kofadura salbuesten da (B eraikinean), natura-akaberako zurezko ate baten bitartez azkena emango baitaio.
- 4. Kasu berezietan, eraikinaren fatxadako lerroakaduran nolabaiteko gorabehera onartzen denean (aurreko 1. artikuluan ezarritakoaren arabera), atari-aurreak eraiki ahal izango dira bide publikoaren sestra berean. Baina nolahi ere, fatxaden konposizioa kofadurak ardatz eta proportzio bertikalekin egingo da, fatxadak lauak direlarik edozein kasutan. Udalak atari-aurreak debekatu ahal izango ditu baldin eta, egitura desegokia badute edota inguruko kale zein espazio publikoekiko itxura desegokia dutela irizten badio eta hori behar bezala justifikatzen badu.

17. Artikulua.- Behe-solairuetako kofadurak

- 1. Kofadurak aurreko artikuluan adierazitako moduan erabakitzen diren ardatz bertikaletan baizik ez dira ireki ahal izango.
- 2. Kofadura guztiak lurzoruraino handituko dira, eta aipatu ardatz bertikalak simetria ardatz bezala hartuko dituzte. Kofadura bakoitzaren funtziora egokituz, honen itxura arotziaren antolaketan irtenbide ezberdinak ezarri ahal izango dira –pasabideaz hornituta edo gabe–
- 3. Fatxada jakin batean, kofadura baten gehienezko zabalera, delako fatxadan kofaduretako ardatz bertikalek beraien artean mantentzen duten distantzia komunaren %75koa izango da. Goi-solairuetako antolaketa-ardatzen arabera agertuko liratekeen kofaduretatik bi bateratzea baimendu ahal izango da, baina behe-solairuan bakarrik. Kasu horretan, bateratutako kofadura honen muga bertikalak goi-solairuetako kofaduren muturreko muga bertikalen segidara egokituko dira, juxtu-juxtu; kofadura bateratuak ordezkatzeko dituen bi bakoien osaketa-ardatzen gainean kokaturiko goi-solairuetako kofaduretara, alegia.
- 4. Behe-solairuko kofadura bakoitza, behe-solairuko lokal bakarretarako izango da (ataria kontzeptu horren barruan sartuta); ezingo da lokal gehiagorentzat erabili.
- 5. Kofaduretako ateburuek, behe-solairuko espazioetako baino ez diren kofadura guztietarako komuna den lerro horizontal bateko altuera hartuko dute.
- 6. Lehen solairua etxebizitza ez den erabileretara ematen bada, behe-solairuko kofadurak lehen solairu horretara hedatu ahal izango dira, hurrengo artikuluan zehazten den moduan.
- 7. Kofaduraren itxuraren sakonera gutxienez 18 cm-koa eta gehienez 50 cm-koa izango da, lurzatiaren kanpoko lerroakadura jarraitzen duen fatxadaren paramentuarekiko. Behe-solairuko kofaduretako ateeak, irekitzean, ez dute inolaz ere bide publikoa hartzerik izango. Lokal bateko atea, edozein arrazoi dela ere, kanpoaldera ireki behar badira, atearen kokagunea atzeratu egingo da, beharrezko sakonera emanaz, irekitzean espazio publikoa har ez dezan.

18. Artikulua.- Goi-solairuetako kofadurak

- 1. Irtenbide oro har, eraikinen goi-solairuetako kofadurak, 16. artikuluan definitutako ardatzetan kokatu beharko dira.
- 2. Kofadura guztiak lurzoruraino handituko dira, eta aipatutako ardatz bertikalak simetria ardatz bezala hartuko dituzte.
Fatxada jakin batean, kofadura baten gehieneko zabalera (hormaren kanpoaldeko gainaldean neurtuta) delako fatxadan kofaduretako ardatz bertikalek beraien artean mantentzen duten distantzia komunaren %50koa izango da, 170 cm gehienekoa izanez. Kofadurek altuera bera izango dute solairu berean, horien ateburuak gutxienez solairu horizontalaren (sabaia) beheko aldearen 30 cm. azpitik kokatuz.
Kofaduraren itxuraren sakonera gutxienez 18 cm-koa izango da, fatxadaren paramentuarekiko.
- 3. Ordena orokorrera egokitzen diren fatxadetan, lehen solairua etxebizitza bezala erabiltzen ez den kasuetan, solairu horretako fatxadako kofadura bakoitzaren zabalera, beheko solairuko kofaduraren zabalera bera izan daiteke, ardatz bertikal beraren arabera beheko solairuan kokaturiko kofaduraren gainean badago; eta, kofadura horrekin batu ahal izango da altuera bikoitzeko kofadura bakarra osatuz. Azken kasu horretan, kofadurako itxuraren sakonera behe-solairurako aurreikusitako mugak izango ditu.


19. Artikulua.- Teilatu-hegalak

Harriz, zurez, harri artifizialez edo hormigoiz eraiki daitezke.

Teilatu-hegaleko hegalkinaren gehieneko irtenunea, fatxadako paramentuarekiko, berrogeita hamar (50) cm-koa izango da, paramentutik urrunen dagoen muturretik neurtuta. Estalkiarentzat ageriko erretenaren irtenbidea hartuko balitz, teilatu-hegalaren gehieneko irtenunea berrogei (40) cm-koa izango da.

Teilatu-hegala horizontala izango da beti, etenik gabea, eraikineko fatxadan edo fatxadetan zehar hedatuz. Teilatu-hegal horrek, edozein kasutan ere, laugarren goi-oineko sabaiaaren forjatuak eraikinean hartzen duen altuera hartu ahal izango du, gehienez, bide publikoaren sestra gainean.

Eraikinaren altueratik gora, estalkiko isurialdearen hasiera adierazten duen teilatu-hegalaren gehieneko aurrealdea hamabi (12) cm-koa izango da.



20. Artikulua.- Balkoiak

- 1. Goi-oinetan, fatxadako paramentuen kanpoaldetik, bide publikoaren sestran kalearen lerrokadurarekiko balkoi irtenak onartuko dira, ondoren aipatuko diren baldintzak betez.
- 2. Beheko oinaren gaineko bigarren, hirugarren eta laugarren oinetan bakarrik onartuko dira balkoiak, eta fatxadako kofadurak 1,30 metroko zabalera gaintzen ez duenean, betiere.
- 3. Erlaitz eta karela gehieneko irtenunea 40 cm-koa izango da fatxadako paramentuarekiko, eta erlaitzaren ertza ez da 20 cm-tik gorakoa izango.
- 4. Balkoiak banakakoa izango da eta beteko duen kofaduraren simetria bertikaleko ardatz bera hartuko du, honako baldintza errespetatuz: Finken arteko banaketa-mehelinarekiko distantzia ez da izango

erlaitzarentzat proiektatzen den irtenunea baino txikiagoa.

- 5. Balkoi korrituak Gorriti Plazara ematen duen fatxadan bakarrik onartuko dira, hau da, finkatzen den A eraikinaren mendebaldeko fatxadan. Eta, banakako balkoien baldintza berak errespetatu beharko dituzte. Gainera, ezin izango dira hedatu baimenduak dauden eraikinaren oin guztietara.
- 6. Balkoia ez da fabrikakako karelez itxiko, ezta begiratokirik osatuko ere; aitzitik, burdinazko barroteez egindako karel tradizionala ipiniko da, gutxienez 1,05 m-ko altuerakoa. Gainera errematea esku-bandaz estali daiteke. Karelaren behealdea, berriz, balkoiko losan ainguratuko da. Karel gisa herriguneko etxe eredugarrietan daudenetako bat ezarri ahal izango da. Izan ere, fatxadaren ordena orokorra bihurtzen dutenak edo erabiltzailearentzat arriskugarri suerta daitezkeen funsgabeak ez dira onargarriak izango. Burdineriak itsas-gris, berun-gris edo beltzez margotu daitezke
- 7. Kantoietara edo bost metrotik beherako zabalerako eremuetara ematen duten fatxadetan ez da balkoirik onartuko.
- 8. Elementu irtenkaririk edo begiratokirik ez da onartzen.

21. Artikulua.- Estalkiak

- 1. Eraikinen laugarren goi-solairuko sabaiaren forjaturik gora estalkia eta instalazioen elementu tekniko jakin batzuk soilik eraiki ahal izango dira.
- 2. Estalkiaren formak ondorengo ataletan adierazten diren zehaztapenei erantzungo die
- 3. Fatxada bakoitzetik, estalkia uniformeki inklinatua eraikiko da, eraikinaren laugarren solairuko sabaiaren forjatuaren plano horizontalarekiko gehienez ere %30eko malda emanez; hau da, eraikuntzaren barne aldera egiten diren hamar metro bakoitzeko, estalkia hiru metro igo daiteke teilatu-hegalaren plano horizontalaren gainean. D eraikinaren patioko estalkia ezik, laua izango dela.
- 4. Estalkia osatzeko kolore naturaleko eta uhin bikoitzeko exekuzioko –kanala eta bizkarra- zeramikazko teilak erabiliko dira. Beharrezko elementu osagarriak ere (erremateak, gailurrak eta abar) material berekoak izango dira.
Euri urak, teilatu-hegalari ahal izanez gero atxikitako zorrotan bilduko dira. Erretenak agerikoak badira, zink edo kobrezkoak izango dira (distirazko edo distira gabeko akaberaz), edota teilatu-hegalaren kolore berdinez margotuko dira bestela
- 5. Derrigorrez eraikinaren laugarren solairuaren sabaiko forjatutik gora ipini beharreko instalazioen elementu teknikoak ez dira fatxadengandik hurbil ipiniko. Aitzitik, fatxadatik ahalik eta gehien urrunduko dira, kale-bidetik ikusiko ez diren moduan. Elementu horiek, artikuluko honetako 3. atalean adierazitakoaren arabera estalki-planoen azpian geratuko dira. Estalkia gaindituz, honako hauek bakarrik ezarri ahal izango dira: kea erauzteko edo aireztatzeko hodiak, barrez eta hagatxoez osatutako antena kolektiboak, eta tximistorratzak. Kanpoko bestelako instalazioak ere ipini daitezke, antena parabolikoak esaterako, estalkitik gora egin gabe eta, betiere, estalki inklinatuaren planoek mugatutako bolumenaren barruan. Elementu horiek ahalik eta eremurik txikienean sartuko dira, metro karratuko azalera gehienez ere, eta bistako elementu guzti-guztiak estalkiko zeramikaren kolore berean margotuko dira. Eguzki-plakak ez dira beharrezkoak (alderdi horri dagokionez eremuak ez baitauka zertan Kode Teknikoko *DB-HE -Ur beroaren gutxieneko eguzki-ekarpena-* atala bete behar) eta debekatuak geratzen dira fatxada eta estalkietan; beharrezkoa izatekotan, irtenbide berritzaileak erabiliko dira energia-eraginkortasunaren eskakizunei erantzuteko, betiere ondasunaren ondare-balioak babestuz.
- 6. Azken oinetik gora eraikineko instalazioen elementu teknikoak, aurreko atalean adierazi direnak, gordetzeko espazioak eta etxebizitzaren trasteleku osagarriak soilik eratu ahal izango dira eta, betiere, etxebizitza horietan bizi direnek bakarrik erabiltzeko deposituak edo biltegiak izango dira. Dena den, trastelekuak ez dira etxebizitzekin zuzenean lotuko, eraikineko eskailera komunaren bitartez baizik. Nolanahi ere, espazio horiek estalki inklinatuko planoen azpian kokatu eta integratu beharko dira, estalki inklinatuaren itxura uniformearekin bihurtuko duen irtenunerik edo funsgabeko formarik inolaz ere sortuko ez den moduan, alegia.

C) SEGURTASUNA, OSASUNA ETA APAINDURA

22. Artikulua.- Eraikin motak eta etxebizitza motak.

Mehelinen arteko eraikinen kasuan, etxebizitza bakoitzak lur-zatiaren aurreko eta atzeko fatxada aldera kofadurak izango ditu, edo, mehelinen artean kokaturik ez dauden lur-zatien kasuan, bi fatxadetarako kofadurak.

Etxebizitzek eta baimendutako gainerako erabilerek, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzei dagokienez indarrean dagoen araudiak ezarritakoak bete beharko dituzte.

Lehen solairuan etxebizitzak aurreikusten duten eraikuntza proiektuetan, banaketa aztertuko dute hirugarren sektoreko erabileretarako lokaletan erraz moldatu ahal izan dadin. Edozein kasutan, bizitegi erabileren eta eraikinean aurreikusi diren edo ezar daitezkeen hirugarren sektoreko erabileren arteko nahasketak saihesten saiatuko dira.

23. Artikulua.- Argiteria eta aireztapena

- 1. Logela, egongela edo sukalde izateko ahalmena duen gela bizigarri orok kanpoaldetik edo argi patioetatik zehar aireztapen eta argiztapen zuzena jaso beharko du, Tolosako Hiri Antolamendu Plan orokorrean bizitegi gunetarako oro har araututako ezaugarriekin.
Gainera, Plan Berezi honek hartzen duen eremuan, ondorengo puntuetan gai honi buruz ezarriko diren xedapenak aplikatuko dira.
- 2. Gela bizigarri bat aireztatzeko patioa goitik bakarrik irekita badago, barruan 3 m-ko diametroko zirkulua sartzeko moduko tamaina izango du gutxienez. Inongo puntutan ez da paramentuen arteko distantzia 2 m-tik behera murrizten duen estugunerik egongo. Patio horren azalera ez du 9 m²-tik behera egingo. Hori guztia indarrean dagoen araudiaren beste neurri gehigarrien kalterik gabe.
Patioa eskaileraren ondoan kokaturik badago eta berrori guztiz irekitzen bazaio, eskailera kaxaren bolumena patioaren espaziokoari erantsiz, patio horren kofaduraren dimentsioa 7 m²-ra murriztu ahal izango da, bertan 2,5 metro diametroko zirkulu bat marraztea ahalbidetuz.
Patioa, bere azalera osoa hartuko duen tamainako sabaileiho batez estali ahal izango da. Sabaileiho patioko hormen eta sabaileihoaren artean espazio librea utziko du, gutxienez patioaren azalera berdina izango den aireztapen azalerakoa.
Patioa fatxada batetara irekitzen bada, bai zuzenean bai eskailera kaxaren ondoan, paramentuen arteko gutxienezko tarte 2 m-ra murriztu ahal izango da, eta 7 m²-ko azalera izango du gutxienez.
Patioa aurrez-aurreko bi fatxadetara irekitzen bada, paramentuen arteko distantzia 1,20 metrora murriztu ahal da. Bertan, eskailera irekia erantsi ahal da.
Marraztutako D erakinaren patioko fatxadaren kasuan, lerrokadurak gehinezkoak dira.
Patioko sabaileihoa estalkiko isurialdeen maila berean ezar daiteke, aurretik zehaztutako ezaugarriak errespetatuz.
Patioaren zoladura argiztatu eta aireztatu beharreko gelak dauden solairuetako zoru-maila berean jarriko da. Zoru iragazgaitz, hustubide eta sifoi arakagarriaz hornitu beharko da. Bertan, behe-solairua argiztatzeko argizuloez edo material zeharrargitsuz estalitako kofadurak ireki ahal izango dira. Kofadurak ixteko elementuen altuera ez da, inoiz, argiztatu eta aireztatu beharreko geletako zoruaren gainetik metro bat baino gehiago irtengo.
- 3. Logela, egongela edo sukalde bezala erabiliko ez diren etxebizitzetako espazioen aireztapen eta argiztapena, (fatxadetatik edo argi patioetatik burutzeaz gain) aireztapen patioen bitartez ere egin ahal izango da, bizitegi gunetarako oro har araututako ezaugarriekin. Hori guztia indarrean dagoen araudiaren beste neurri gehigarrien kalterik gabe.
Barruan gutxienez 1,5 m-ko diametroko zirkulua sartuko den moduko neurriak izango ditu patioak, bere oinaren inongo puntutan paramentuen arteko distantzia 1,5 m-tik behera murrizten duen estugunerik gabe. Patioa fatxadara ireki ezean, gutxienezko azalera 3 m²-koa izango da (altuera bi solairuetako baino handiagoa ez bada), eta 4,5 m²-koa (patioaren altuerak eraikineko bi solairuen altuera gainditzen badu). Patio horiek, argi patioen baldintza berberak beteko dituzte aireztapenari eta eraikuntzari dagokienez.
Bainugela eta komunen aireztapenerako, eta sukaldeko lurrinak erauzteko derrigorrezko hodiaren instalaziorako, indarrean dagoen araudia beteko da.
- 4. Zerbitzu publikorako erabiliko diren merkataritza lokal eta bulegoetako espazioak, langileen egonaldira emandakoak edo horretarako ahalmena dutenak, aireztapen eta argiztapen naturalaz hornitu beharko dira, fatxadatik edo galeria nahiz argi patioetatik zehar. Espazio horiek aireztapenerako kofadurak eduki beharko dituzte, eta orotara, gela bakoitzaren oinplanoko azalaren 1/8a hartuko dute gutxienez (lokala, halakorik balitz, ateak itxita neurtuta). Derrigorrez aireztapena izango duten higiene zerbitzuetan, aurreko paragrafoan zehaztutako bezalako hodi bidezko aireztapenak ere onartzen dira.

24. Artikulua.- Igogailuak

Bolumen edo instalazio jakin batzuek igogailuak eskatzen badituzte, 21. artikuluan zehazten den bezala eratutako estalkiaren azpian integratuta geratuko dira.

25. Artikulua.- Eskailera

- 1. Eraikinen erabilera komuneko eskaileraren egitura materiak erregaitzez egingo da. Eskailera-atalek 1,10 m-ko zabalera librea izango dute gutxienez. Hau da, pasabidea osatzen duten osagaien artean

neurtuta, alegia (baranda eta paramentuaren artean, edo bi paramenturen artean, adibidez). Maila-gaina eta maila-tea uniformeak izango dira eskaileren altuera osoan zehar. Maila-gainak 27 cm-ko zabalera izango du gutxienez (behekoarekiko moldura edo hegalkina aparte utzita), eta mailarteak 18 cm-ko altuera izango du gehienez.

Eskailera hauetan ez dira eskailburuak angeluan onartzen, gutxienez metro bateko garapena ahalbidetzen ez badute behintzat, ez eskailera konpentsaturik, ezta eskailburu zatiturik ere. Barandak gutxienez 0,80 metroko altuera izango du atal inklinatueta eta 0,90 m-koa atal horizontaletan.

Merkataritza lokalen zerbitzurako eskailerek (jendeak erabiltzekoak ez direnak) edo etxebizitza barrukoek, halakorik balego, 0,80 metroko zabalera izango dute gutxienez.

- 2. Erabilera kolektiboko eskailerek argiztapen eta aireztapen natural zuzena izango dute goi-solairuetan.

Argizuloen bidezko edo argi patioen bidezko aireztapen eta argiztapen zenitala ere onartzen da eraikinaren oin guztietan bi kasuetan.

Eskailera argizuloaren bidez argiztatzea erabakitzen bada, argizulo horrek oinean hartzen duen azalera, eskaileren kaxak oinean hartzen duen azaleraren heren bat izango da gutxienez. Eskailera-begiak 0,80 metroko zabalera izango du gutxienez, eta bere azalerak ez du 1,25 m²-tik behera egingo. Gutxienerako azalera hori bera izango da aireztapen zenitalaren bidez lortu beharrekoa.

Sabaileihoa beira lauaz eta metalezko profil pintatuz eraikiko da, Ordenantza hauetan fatxadako arotziari buruz zehaztutako akaberaz. Estalkiko isurialdeen malda berberaz edo handiagoaz jarriko da.

Argiztapena eta aireztapena fatxadatik egiten bada (8edo argi patioan zehar), oin bakoitzean kofadura bat irekiko da, gutxienez 1,25 m²-ko azalerakoa. Aireztapen eta argiztapen kofadurak fatxadara patio irekietara edo bi fatxadetara pasabide irekitako espazioetara ere ireki daitezke.

Eskailerak etengabe aireztatuta egongo dira goialdean eta behe-solairuan behintzat.

- 3. Ateriko ateak edo eskailerara sartzekoak 1,20 metroko zabalera librea izango du gutxienez eta ate horretatik lehenengo eskailera-mailara bi metroko tartea utziko da gutxienez.
- 4. Edozein kasutan, indarrean dagoen bizigarritasun, irisgarritasun eta suterik egotekotan segurtasun araudia beteko da.

26. Artikulua.- Fatxaden akabera

Fatxaden eraikuntzan harria erabili ahal izango da beronen osagaietan edo soluzio orokor bezala. Ohikoagoak diren eraikuntzako soluzioak hartuz gero, fatxadak koloreztatu edo margotutako entokadura lauez estaliko dira. Fatxada bakoitzeko kolore bakarra hartuko da. Zura ere erabili ahal izango da, fatxaden eraikuntzan osagarri gisa, baina funtsezko egitura funtziorik gabe, ezta balkoietako kareletan ere.

Fatxadarekiko elkarzutean ipinitako janba eta paramentuak tonu argiagoz margotu ahal izango dira, fatxadarako hautatutako kolorean betiere, kofadurak gehiago azpimarratzeko soluzio komunari jarraituz.

Janba, ateburu, inposta edo ezartzen diren bestelako osagaien moldurek ez dute lau (4) cm baino gehiagoko irtenunerik izango fatxadako planoarekiko.

Inpostak, erlaitzak, zokaloak eta harriz proiektatzen diren bestelako osagaiak gris koloreko kare-harrizkoak izango dira, Alde Zaharreko eraikin gehienetan bezala. Eta, gutxienez bost (5) cm lodierako piezak erabiliko dira.

Fatxada bat diseinatzekoan aldamenean lehenetik daudenak aztertuko dira - halakorik izanez gero-, horiek fatxada berriaren diseinuan integratu daitezken, ordena jarraitua eratuz (esate baterako zokalo edo inposta moduan, edo elementu apaingarri moduan edo teilatu-hegal jarraitua osatuz, eta abar). Horregatik, eraikin berriaren proiektuan aldameneko finketako aurretiko altxaerak bilduko dira eskala berera proiektaturiko fatxada berriekin batera. Baita proiektuaren datan haien egoeraren argazkiak ere.

Behe-solairuetan, fatxada akaberak harrizkoak edo harri itxurako itzukuzkoak izango dira, akabera leunduak debekatuz. Eraikinaren zokaloaren goiko solairuek osatutako multzoarekiko irakurketa berezia ahalbidetuko dute.

27. Artikulua.- Fatxadetako arotzia.

Alde Zaharreko kale edo plazetara begira dauden fatxadetan, kofaduretako arotzia zuzekoak izango da, tonu bero eta apaletan pintatua, fatxadarako hautatutakoekin bat datorren kolorean, eta erabakitzen den soluzioa fatxada osora hedatuko da.

Tonu deigarri edo dirdaitsuko kolorerik ez da onartzen, horia, laranjatua, gorria, urdina, morea edo antzekoak kasu.

Barnealdeko fatxadetan zura naturala antzeko akaberazko materialen bitartez aldatu ahal izango da.

28. Artikulua.- Pertsianak eta langak.

Alde Zaharreko kale edo plazetara begira dauden fatxadetan, goi-solairuetako pertsianak –jarriko balira– alboetara tolesgarriak izango dira. Irekita hormako kofaduraren alpeetan integratuta geratuko dira. Aurreko artikuluan ezarritako baldintzetara egokitu beharko dira.

Behe-solairuetan, kofaduraren itxitura uniformeki bertikalean edo horizontalean tolestuko den langa metaliko zulodunez babestu ahal izango da. Instalazioaren berezko osagai guztiak fatxada lerroaren barrualdetik kokatuko dira.

Behe-solairuan Ordenantza hauetako 3. artikuluan aurreikusi diren aparkalekurik balego, gorputz opakoak onartuko dira.

Langak pintatu egingo dira, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betez.

29. Artikulua.- Euri-uren zorrotanak.

Bertikalki ipiniko dira, fatxadaren kanpoaldean prestaturiko lekuetan, kanalizazioa fatxadako paramentuaren planotik irtengo ez den moduan.

Ageriko hodiak burdinurtuzkoak izango dira behe-solairuaren altueran eta, metalezkoak gainerakoetan, fatxadaren kolore berberaz pintatuak (kobrezkoak badira, distirarik gabeko akabera izango dute).

30. Artikulua.- Errotuluak eta bestelako elementuak.

Bide publikora ematen duten fatxadetan, kofaduretan txertaturiko errotuluak onartzen dira. Fatxadan margotutako edo letraz letra erantsiak, fatxadaren kofaduren gain-ginean kokatutako eremuan (horien zabaleraren barruan).

Errotuluek berrogei (40) cm-ko altuera izango dute gehienez.

Errotulua kofaduran eransten bada, fatxadaren lerrotik irteten ez den moduan izango da, eta aireztapen nahiz argiztapen azalera gutxienerako onargarriaren azpitik murriztu gabe, betiere.

Oro har, behe-solairuan soilik onartzen dira; eta, lehen-solairuan bizitegi erabilera ez badauka.

Lehen-solairuko errotuluak fatxadako kofaduren barruan bakarrik txertatu ahal izango dira.

Etxe bereko errotulu guztiak altuera berean ipiniko dira baimendutako solairu guztietan. Baldintza hori lizentzia eskatzean aurkezten den proiektuan jaso beharko da.

Fatxadaren kanpoan ez dira onartzen ez markesinarik, ez toldorik ez beira-arasarik. Galarazita dago fatxadaren elkarzutean bandera itxurako errotuluak ezartzea, baita baimendutako oinez kanpo edonolako errotuluak ezartzea ere.

D) UDALAZ GAINDIKO ZEHAZTAPENAK

31. Artikulua.- Soto-solairuko estankotasuna.

Barne estantokasuna ziurtaraziko da 500 urte bitarteko errepika-denborako uholdeek har ditzaketen eremuetan.

Aukerako badaezpadako neurri bezala, aparkalekuko sarbide arrapala 74,00 metrotaraino igo ahal izango da (Eraikuntza Proiektuetan zehaztuko da).

Ebakuazio bideak eta aparkalekuko arnaszuloak 500 urte bitarteko errepika-denborako uholdeek har ditzaketen eremuen sestra gainetik jarriko dira.

Hormaren goiko kota eta ezaugarri teknikoak Eraikuntza Proiektuan definituko dira.

Erabilerei dagokienez, behe-solairuan ez dira bizitegi-erabilera edo antzekoak onartuko. Ostatu-erabilera izatekotan, behe-solairuan zerbitzu guneak, komunak, etab. ipiniko dira.

32. Artikulua.- Jabari publiko hidraulikoa eta ibilguen polizia-guneak.

Jabari publiko hidraulikoari eragiten dizkioten jarduketek, egikaritze aurretik, Ur Agentziaren obretarako nahitaezko baimena lortu behar dute. Sustatzaileak aipatutako obra-baimena eskatu behar du proiektuaren eskaerarekin batera.

33. Artikulua.- Gainerako baldintzapena: kutsatuta egon litezkeen lurzorua.

Eraikuntzaren erregimena eta erabilera zona globalean ezarritakoa da, eta, halakorik balego, lurzoru eta eremu horiek kokatzen diren (azpi)eremu xedatuan ezarritakoak, ahal den neurrian, euren berreskurapena eta saneamendua ahalbidetzeko. Hori guztia 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ezarritako irizpideekin eta arauekin bat etorritik.

Baldintzapen honek indarrean dagoen legeriak ezarritako araudi izaera du.

Aipatutako Legeak ezarritako irizpideen arabera jokatu da. Ondorioz, bertan aurreikusitako azterketak eta proiektuak, eta horiek ezarritako neurrien eta jarduketaren ondorengo egikaritzea burutuko dira.

Egiturazko-planeamendu planoan (A Saila) Gainera Baldintzapenen menpe dagoen eremua marraztu da.

34. Artikulua.- Gainera Baldintzapena: Done Jakue bidea.

Multzo Monumentalaren Mugapenak dagokion eremuan egin beharreko jarduketak Foru Aldundiko organo eskudunaren baimenaren menpe egongo dira (2/2010 Dekretuaren arabera, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia, Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzekoa).

Udalak esku-hartzeak zuzenean baimendu ahal izango ditu, baina hamar eguneko epean Foru Aldundiari jakinarazi beharko dira.

35. Artikulua.- Gainera Baldintzapena: Hirigune Historikoko guneko arkeologikoa.

Aurrez-aurre sustatzaileak proiektu arkeologikoa Foru Aldundian aurkeztu beharko du, burutu baino lehen onetsi dadin. Eragiketen jabea zuzenbide publikoko erakunde bat izatekotan, finantzazioa bere kontura izango da. Kontrakoa, dagokion Foru Aldundiak, araudiaren arabera zehaztuko diren laguntzen bitartez, gastuetan parte hartuko du, zuzenean beharrezkoa dela uste duen proiektua egiten ez bada. Edozein kasutan, Foru Aldundiak jarduketa arkeologikoaren zenbatekoaren %50 ordaindu beharko du (1990ko uztailaren 3ko Euskal Kultur Ondareari Buruzko 7/1990 Legearen 45.5. Artikuluaren arabera).

ERAIKUNTZA-UNITATEEN FITXAK

A ERAIKINA - OYARBIDE HOSTATUA

1. Identifikazioa

A Eraikina

2. Eraikuntza mota: Isolatua

Kokapen planoak:

3. Partzelazio baldintzak

Ordenantzetan ezarritakoak.

4. Baimendutako garaiera eta solairu-kopurua

Erlaitz edo teilatu-hegalaren garaiera: 12,50 m
Gehieneko solairu-kopurua: Behe-solairua gehi hiru.
Gutxieneko garaiera librea: Behe-solairuan.: 3,20 m
Goiko solairuetan: 2,60 m

5. Baimendutako estalki-mota

Ordenantzetan ezarritakoak.

6. Berezko erabilerak eta erabilera-bateragarriak edo onargarriak

	Erebitzita	Merkataritza	Bulegoak	Ostalaritza	Osasun-laguntzako erabilera	Soziokulturala/ Hezkuntzarako	Erijiosoa	Jolas-erabilera	Kiroletakoa	instituzioko eta zerbitzu erabilera	Aparkekua	Industria (1 kategoria)	Aparkekua-sarbidetza
Behe-solairuetan	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	—
1. solairuan	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai *	Ez	Bai*	Ez	Bai	Ez	Bai *	—
Beste goiko solairuetan	Bai	Ez	Ez	Bai	Ez	Bai *	Ez	No	Ez	Bai *	Ez	Ez	—
Besteak	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Erregimen berezia	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—

*Ordenantzetan aurreikusitako baldintzen arabera

7. Baimendutako eraikuntza-jarduerak

(Eusko Jaurlaritzaren 217/2002 Dekretuaren I eranskinaren arabera.)	Oin berrikoak	Eraispena		Handitze gabeko eraikuntza-jarduerak						Handitze eraikuntza-jarduerak	Jarduera Mistoak		
		Osoa	Zati batekoa	Eraikitakoaren mende hertsian				Sakonak			Ordezkapen	Berreraikuntza	
				Zaharberritze zientifikoa	Zaharberritze mantentzailea	Zaharberritze eta apaingarri	Sendotze	Berreraikuntza	Eraberitze				
Baimendutako eraikuntza-jarduerak	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez
Birgaitze izaerakoak	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez

8. Eraikinaren zortasunak eta beste loturak

9. Zehaztapen grafikoak

Behe-solairua	Goi-solairuak
Gehieneko azalera: 284,78 m ²	Gehieneko azalera: 854,34 m ²

B ERAIKINA

1. Identifikazioa

B Eraikina

2. Eraikuntza mota: Isolatua

Kokapen planoak:

3. Partzelazio baldintzak

Ordenantzetan ezarritakoak.

4. Baimendutako garaiera eta solairu-kopurua

Erlaitz edo teilatu-hegalaren garaiera: 15,50 m

Gehieneko solairu-kopurua: Behe-solairua gehi lau.

Gutxieneko garaiera librea:

Behe-solairuan: 3,20 m

Goiko solairuetan: 2,60 m

5. Baimendutako estalki-mota

Ordenantzetan ezarritakoak.

6. Berezko erabilerak eta erabilera-bateragarriak edo onargarriak

	Etxebizitza	Merkataritza	Bulegoak	Ostalaritza	osasun-laguntzako erabilera	Soziokulturala/ Hezkuntzarako	Erlijosoa	Jolas-erabilera	Kiroletakoa	instituzio eta zerbitzu publikoak	Aparkalekua	Industrialia (1 kategoria)	Aparkaleku-sarbidetza
Behe-solairuetan	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai
1. solairuan	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai *	Ez	Bai *	Ez	Bai	Ez	Bai *	Bai
Beste goiko solairuetan	Bai	Ez	Ez	Bai *	Ez	Bai *	Ez	Ez	Ez	Bai *	Ez	Ez	Bai
Besteak	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Erregimen berezia	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—

*Ordenantzetan aurreikusitako baldintzen arabera


7. Baimendutako eraikuntza-jarduerak

(Eusko Jaurlaritzaren 217/2002 Dekretuaren I eranskinaren arabera.)	Oin berrikoak	Eraispena		Handitze gabeko eraikuntza-jarduerak						Handitze eraikuntza-jarduerak	Jarduera Mistoak	
		Osoa	Zati batekoa	Eraikitakoaren mende hertsian				Sakonak			Ordezkapen	Berreraikuntza
				Zaharberitze zientifikoa	Zaharberitze mantentzailea	Zaharberitze eta aipaingarri	Sendotze	Berreraikuntza	Eraberitze			
Baimendutako eraikuntza-jarduerak	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Birgaitze izaerakoak	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez

8. Eraikinaren zortasunak eta beste loturak

Sarrera komunikazio gunera eraikinaren kantoitik debekatzen da.

9. Zehaztapen grafikoak



C ERAIKINA

1. Identifikazioa

C Eraikina

2. Eraikuntza mota: Mehelin eta hiru fatxadekin

Kokapen planoak:

3. Partzelazio baldintzak

Ordenantzetan ezarritakoak.

4. Baimendutako garaiera eta solairu-kopurua

Erlaitz edo teilatu-hegalaren garaiera: 15,50 m

Gehieneko solairu-kopurua: Behe solairua gehi lau.

Gutxieneko garaiera librea:

Behe-solairuan: 3,20 m

Goiko solairuetan: 2,60 m

5. Baimendutako estalki-mota

Ordenantzetan ezarritakoak.

6. Berezko erabilerak eta erabilera-bateragarriak edo onargarriak

	Etxebizitza	Merkataritza	Bulegoak	Ostalaritza	osasun-laguntzako erabilera	Soziokulturala/ Hezkuntzarako	Erlijosoa	Jolas-erabilera	Kiroletakoa	instituzio eta zerbitzu publikoak	Aparkalekua	Industrialia (1 kategoria)	Aparkaleku-sarbidetza
Behe-solairuetan	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai
1. solairuan	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai *	Ez	Bai *	Ez	Bai	Ez	Bai *	Bai
Beste goiko solairuetan	Bai	Ez	Ez	Bai *	Ez	Bai *	Ez	Ez	Ez	Bai *	Ez	Ez	Bai
Besteak	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Erregimen berezia	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—

*Ordenantzetan aurreikusitako baldintzen arabera

7. Baimendutako eraikuntza-jarduerak

(Eusko Jaurlaritzaren 217/2002 Dekretuaren I eranskinaren arabera.)	Oin berrikoak	Eraispena		Handitze gabeko eraikuntza-jarduerak						Handitze eraikuntza- jarduerak	Jarduera Mistoak	
		Osoa	Zati batekoa	Eraikitakoaren mende hertsian				Sakonak			Ordezkapen	Berreraikuntza
				Zaharberitze zientifikoa	Zaharberitze mantentzailea	Zaharberitze eta apaindari	Sendotze	Berreraikuntza	Eraberitze			
Baimendutako eraikuntza-jarduerak	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Birgaitze izaerakoak	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez

8. Eraikinaren zortasunak eta beste loturak

Sarrera komunikazio gunera eraikinaren kantoitik debekatzen da.

9. Zehaztapen grafikoak

Behe-solairua	Goi-solairuak
Gehieneko azalera: 229,54 m ²	Gehieneko azalera: 948,16 m ²

D ERAIKINA

1. Identifikazioa

D Eraikina

2. Eraikuntza mota: Mehelin eta hiru fatxadekin

Kokapen planoak:

3. Partzelazio baldintzak

Ordenantzetan ezarritakoak.

4. Baimendutako garaiera eta solairu-kopurua

Erlaitz edo teilatu-hegalaren garaiera: 15,50 m

Gehieneko solairu-kopurua: Behe-solairua gehi lau.

Gutxieneko garaiera librea:

Behe-solairuan: 3,20 m

Goiko solairuetan: 2,60 m

5. Baimendutako estalki-mota

Ordenantzetan ezarritakoak.

6. Berezko erabilerak eta erabilera-bateragarriak edo onargarriak

	Etxebizitza	Merkataritza	Bulegoak	Ostalaritza	osasun-laguntzako erabilera	Soziokulturala/ Hezkuntzarako	Erlijosoa	Jolas-erabilera	Kiroletakoa	instituzio eta zerbitzu publikoak	Aparkekua	Industrialia (1 kategoria)	Aparkekua-sarbidetza
Behe-solairuetan	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai
1. solairuan	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai *	Ez	Bai *	Ez	Bai	Ez	Bai *	Bai
Beste goiko solairuetan	Bai	Ez	Ez	Bai *	Ez	Bai *	Ez	Ez	Ez	Bai *	Ez	Ez	Bai
Besteak	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Erregimen berezia	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—

*Ordenantzetan aurreikusitako baldintzen arabera


7. Baimendutako eraikuntza-jarduerak

(Eusko Jaurlaritzaren 217/2002 Dekretuaren I eranskinaren arabera.)	Oin berrikoak	Eraispena		Handitze gabeko eraikuntza-jarduerak						Handitze eraikuntza-jarduerak	Jarduera Mistoak	
		Osoa	Zati batekoa	Eraikitakoaren mende hertsian				Sakonak			Ordezkapen	Berreraikuntza
				Zaharberitze zientifikoa	Zaharberitze mantentzailea	Zaharberitze eta apaingarri	Sendotze	Berreraikuntza	Eraberitze			
Baimendutako eraikuntza-jarduerak	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Birgaitze izaerakoak	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez

8. Eraikinaren zortasunak eta beste loturak

